

## **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

Gure proiektua energia garbia sortzeko teknologia berritzailean oinarritzen da: plaka piezo-elektrikoak. Plaka hauek lurrian jarriko ditugu, eta haien gainean oinez edo ibilgailuz pasatzean, energia sortuko dute. Sortutako energia baterietan biltegitatu ahal izango da, ondoren, behar den tokian erabiltzeko. Leku posible batzuk honako hauek dira: herriko plazak, eskolak edo etxeak.

Plaka hauek ekoizteko, Adunan pabeioi bat alokatu dugu plakak bertan produzitzeko. Hemen, eskaera guztiak asetzeko eta behar diren plakak fabrikatuko dira. Gainera, laguntza pertsonalizatua eskainiko dugu gure bulegoan.

Gaur egun, ingurumena zaintzeko beharra inoiz baino handiagoa da, eta plaka piezo-elektrikoek aukera egokia eskaintzen dute helburu horretarako. Merkatuan oraindik lehiakide gutxi izanik eta teknologia hau oso ohikoa ez denez, proiektua bereziki erakargarria iruditzen zaigu. Horrez gain, energia berriztagarriaren erabilera areagotzen lagunduko du hainbat arlotan.

Faktore guztiak kontuan hartuta, ziur gaude proiektu honek gizartearentzat eta planetarentzat eragin positiboa izango duela.